



## Sagardoaren kultura Euskadi Gastronomika-ren webgune berria

📅 Urt 24, 2020 🗺️ Gastronomía, Museoak, Sagardoa 💬 0 comments



Euskadi Gastronomiak 750 enpresa eta establezimendu gastronomiko baino gehiagoren informazioa biltzen du bere webgune berria; horien artean aurkitzen dira Sagardoetxea Museoa eta sagardotegiak.

Gastronomia eta ardoak Euskadi aisialdiagatik bisitatzen duten turisten bigarren motibazio gisa mantentzen da, denera %21ekoa izanik.

Euskadin gastronomiak duen garrantzia turistikoa aintzakotzat hartuta, orain gutxi **Euskadi Gastronomika Sarearen** webgunea berri da ([www.euskadigastronomika.eus](http://www.euskadigastronomika.eus)), erabiltzaileari interakzio erraza, responsivea, intuitiboa eta hirugarrenen integrazioa eskainiz, Tripadvisor eta Google kasu. Gainera, enpresa turistikoen interakzioa errazten du blogaren bitartez. Blog honetan, kazetari gastronomiko ezagunek parte hartuko dute eta enpresa nahiz eskualdeek beren proiektuen inguruko informazioa zabaltzeko aukera izango dute.

Webgune berri honek 4 lurralde barne-hartzen dituen **Gastromapa** aurkezten du: Idiazabal Lurraldea, Arabar Errioxako Lurraldea, Sagardoaren Lurraldea eta Txakolinaren

Lurraldea, horietako merkatuak, museoak eta ekoizleak zehazten direlarik.

**Sagardoaren Lurraldea**-ren barruan, erabiltzaileak galdu ezin ditzakeen nahitaezkoak zehazten dira:

- Sagardotegi batean **txotx-aren errituaz** gozatzea.
- **Sagardoetxea Museoan** sagardoaren kultura ezagutzea eta **Igartubeiti Baserri Museoan** sagardoaren elaborazio prozesua ezagutzea.
- Gipuzkoako herri askotan ospatzen diren **Sagardo Egun** batez gozatzea sagardoa dastatuz.
- **Santiagomendiko Sagardo Bidean** zehar ibilaldi bat egitea bertako baserrietako nahiz sagardoaren historia ezagutzeko.
- **Hernaniko hirigune historikoa** bisitatzea sagardoarekin duen lotura ezagutzeko.
- Sagardoak **baiaen arrantzan** izandako garrantzia ezagutzea Donostiako Aquariuma edo Pasaiako Albaola museoak bisitatuz.
- **Sagastiak loretan** daudenean eskaintzen duten paisaia zoragarriaz gozatu Urumea nahiz Ori ibaien ertzean.
- **Sagarretik eratorritako produktuak dastatzea eta erostea:** sagar dultzea, muztioa, likoreak, apardunak, sagardo gozoa, etab.

**Iturria:** Sagardoaren Lurraldeko 2019 urtekaria

## Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak

Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak



[Sagardoa](#)[Sagardotegiak](#)[Sagarra](#)[Sagastia](#)[Turismoa](#)

## Artxiboak

## ZATOZ ETA GOZATU



Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

 **943 550 575**

JARRAI IEZAGUZU...



### ESPERIENTZIAK

[Zure plana erreserbatu](#)[Hautatutako ibilbideak](#)[Beste proposamenak hemendik gertu](#)[Nola mugitu](#)[Non lo egin](#)[Gidak eta informazio praktikoa](#)

### SAGARDOTEGIAK

[Sagardotegia erreserbatu](#)[Sagardotegia aukeratu](#)[Garraioa sagardotegietara](#)[Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak](#)

### SAGARDOETXEA

[Sagardoetxea – museoa](#)[Erakusketa eta bisita guneak](#)[Bisita motak](#)[Nola iritsi eta sarbideak](#)[Tarifak eta ordutegiak](#)[Bisita erreserbatu](#)[Bisita birtuala](#)[Dokumentazio Zentroa](#)

### SAGARDO FORUM

[Sagardo Forum](#)[Jardunaldi teknikoak](#)[Nazioarteko Sagardo Lehiaketa](#)

### AGENDA

### BLOGA

### HEDAPENA

[Boletina](#)[Buletinera harpidetza](#)[Sare sozialak](#)

Emaitzak

Nazioarteko Sagardo Azoka

Izen ematea

Talde teknikoa, hizlariak eta epaileak

Prentsa bulegoa

Aurreko edizioak



**EUSKADI**  
**BASQUE COUNTRY**



© 2020 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua  
LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#) [PROIEKTUAK](#) [AKORDIOAK](#) [KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

